

Nazioarteko bosgarren biltzar honetan izandako hitzaldiak eta ponentziak entzundakoan, egun hauetan egiaztatu ahal izan dugu lehentasunezkoa dela belaunaldi-errelebuaren ondorioei irtenbidea aurkitzea, enpresetan eta, bereziki, enpresa txiki eta ertainetan (ETE) berrikuntza garatzea, lan-indar gaituaren eskasia lanbide-heziketa ikastetxeen bitartez arintzea eta enpresa txikiak eta adierazitako lanbide-heziketa ikastetxeek elkarrekin proiektuak egitea, gure ekonomiaren mailari, gure enpresen arteko lehiakortasunari eta gure gizartearen ongizateari eutsi nahi badiogu.

Bosgarren Biltzar honi amaiera eman aurretik, honako ondorio hauek azalduko dizkizuet labur-labur:

Oro har, zientzia, teknologia, ekonomia eta gizartea izaten ari diren bilakaera bitxi samarra izaten ari da. Bizitzeko, harremanak izateko, lan egiteko, komunikatzeko, informazioa eta jakintza lortzeko moduak orain arte pentsaezinak ziren aukera berri asko ematen ditu. Baina, era berean, hainbat zalantza eta ziurgabetasun sortzen ditu eta horrek konplexutasun handiko egoeran arriskuak daudela pentsarazten digu.

Gure produkzio-sektoreetatik lehian jarduteko dugun konplexutasuna, teknologien bilakaeraren azkartasuna onartzeko konplexutasuna, aurrerapen zientifiko garrantzitsuak ulertzeko konplexutasuna eta gero eta jakintza-maila handiagoa eskatuko digun gizartean bizitzeko konplexutasuna; hain zuzen ere, jakintza horiei esker errazagoa izango da gure munduan aurrera egitea, modu hori gero eta konplikatuagoa, eta batik bat, ezberdinagoa baita.

Duela hamar urte hasi ginen aldaketa garrantzitsuak atzematen, gizarte-kontzeptua aldatu egin zen, zeren industria-eredu izatetik eredu berri bat izatera igaro baitzen. Eredu berri hori, neurri handi batean, teknologian, informazioaren eta komunikazioaren gizarte berrian oinarrituta dago. Aldaketa horrek benetako iraultza eragin du eta aldaketa hori eguneroko bizitzan aplikatzearen, teknologia horiek erabiltzearen eta sortu diren eta herritarrek beste modu batean

funtzionatu behar izatea eragin duten premien ondorioz, nahitaezkoa izan da beste urrats bat ematea bilakaeraren bidean; horrela bada, informazioaren eta komunikazioaren gizartea jakintzaren gizarte bihurtu da. Gizarte berri hori prestatuta dago eta zentzu kritikoa ez ezik elkarrekin bizitzen, harremanak izaten, ezagutzen eta egiten ikasteko gaitasuna ere badu; horretaz gain, hainbat eremutan lehiakorra izateko prestakuntza egokia du.

Gaur egun, ordea, gauzak ezustean ari dira aurrera egiten, oso azkar; izan ere, ekonomia berriaren garapenak eta produkzio-sektoreen bilakaerak eragiten dute gure enpresek erabat irekia eta lehia handikoa den lehiakortasun-eremuan borrokan jardun, sendotu eta biziraun behar izatea.

Eta lehiakortasun horri eman behar zaion erantzunak behartzen gaitu aldaketa berriak sartzera eta gauzen egoera berri baten aurrean, gure gizartea berrikuntza nagusi den kultura-gertakari eraginkortzat hartzen duen gizarte bihurtzera. Berrikuntza nahitaezko erreferentzia izango da gure egunerokotasunean, zeren berritzea edozein aldaketa-prozesurekin, bilakaera-prozesurekin eta garapen-prozesurekin erabat lotuta dagoen kontzeptua izango baita.

Eta gaur, inoiz baino gehiago, lanbide-heziketa garrantzi estrategikoa hartzen ari da gure enpresen lehiakortasuna eta aurrerapena gauzatzeko eta gure profesionalen gaitasuna hobetzeko. Herrialde aurreratuenen oparotasuna, herrialde horietako ekonomien lehiakortasuna eta produkzio-egituren eraginkortasuna haien giza baliabideen prestakuntza-mailaren eta etengabeko eguneratzearen araberakoa da gero eta gehiago. Baieztapen horrek garrantzi handiagoa du Euskadin, zeren, ziur aski, hemen, gure giza baliabideak gure baliabide natural bakarra eta garrantzitsuenak baitira.

Ilido horretatik, lanbide-heziketak, nolabaiteko konplexutasuna duen egoeran sor litezkeen ondorioen aurrean defentsa-jarrera izan ordez teknologien aurrerapenak direla medio, behar diren neurriak hartu beharko ditu teknologia horiek emango duten indarra eta aukera sorta zabala aprobetxatzeko, bai irakaskuntzaren/ikaskuntzaren prozesuari dagokionez, bai kudeaketari eta

antolamenduari dagokionez, bai komunikazioari eta informazioa eskuratzeari dagokionez.

Lanbide-heziketaren nondik norakoa dela-eta, lanbide-heziketa zuzenean inplikaturik eta konprometiturik dago berrikuntzen jakintzarekin, garapenarekin eta berrikuntzak hainbat eremutan aplikatzearekin. Adierazitako eremu nagusia prestakuntzaren edukien berrikuntza teknologikoei buruzkoa da, baita profesionalen trebakuntzei buruz izan ditzakeen ondorioei buruzkoa ere. Dagozkion zereginak behar bezala egiteko eta dituen helburuak lortzeko, hoberena da berrikuntzaren kultura prestakuntza-zereginari eta, zehazki, ikaskuntza-prozesuen eremuari buruzko orori txertatzea.

Baina berritzeak beste modu batean lan egiteko premia dakar, beste helburu eta xede batzuekin, beste antolamendu batekin, etorkizunari buruzko ikuspegi modernoarekin eta lan egiteko modu desberdina bilatzeko premiarekin, hain zuzen ere, pertsonen eta erakundeen, baina, batez ere, ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak eta kooperazio-lana oinarri duen lan egiteko modua. LHko ikastetxeen eta Euskadiko enpresen arteko lankidetzak tradizio luzea eta oinarri sendoak ditu jada. Lankidetzak hori, batik bat, honela gauzatu da: produkzio-zentroetako ikasleak prestatu dira, zerbitzuak elkartrukatu dituzte, bai heziketa-ikastetxeek, ETEei bereziki, bai zerbitzu horiek kontratatu dituzten enpresek, batez ere, hornidura lagatzeari dagokionez.

Gaur egun nahitaezkoa da lankidetzak hori areagotzea, aldatzen ari diren inguruneetan aurrera egingo duten sistema dinamikoak sortzeko aukera bermatuko diguten eta bide egoki baten bitartez koordinatuta, prestakuntza, trebakuntza, produkzio-sektoreak eta lan-merkatua aurrera egiten ari direla ziurtatzen diguten indarren eta ahaleginen batura aprobetxatzeko.

Baina ikastetxeek aldatu behar badute, eta prestakuntzak bilakatu behar badu, garrantzitsua da, halaber, irakasleen figura eta berrikuntzaren eta jakintzaren gizarte berriaren aurrean irakasleek bilakatzeko premia dutela azpimarratzea ere. Gizarte mota berri horrek hezitzailea oso sortzailea izatea eskatzen du eta hark dakiena irakasteko eta aplikatzeko ez ezik, batez ere, sortzeko ere

erabiltzea. Jakintza, orain arte, teknologia garatzeko eta aplikatzeko oinarri gisa erabiltzen zen, gaur egun, ordea, funtsezko teknologia jakintza bera da. Azken batean, bilakaera hori irakasleek honako profil hau izatea lortzera bideratu behar da: jakintza eta eskarmentua modu sortzailean erabiltzea, eskarmentua ikasbide gisa baliatzeko gai izatea, lankideekin lankidetzan aritzea eta berrikuntzak egiteko gai izatea, beren antolamenduaren emaitzak hobetzearen.

Baina berritzeko gauza desberdinak egin behar dira. Gauza batzuk ongi egin direla badakigun arren, gero eta aldakorragoa den gizartean izandako aldaketek eta bilakaera azkarrak eta gero eta globalizatuagoa den ekonomiak etengabeko aldaketa-jarrera hartzera behartzen gaitu lanbide-heziketako ikastetxeei dagokienez. Ikastetxe horiek ondo errotutako balio tradizionalak izanik honako ezaugarri hauek dituzten erakundeak izan daitezten: arinak, biziak, dinamikoak eta sortzaileak, erakunde bizkorak, ikasi, irakatsi eta partekatzen dutenak, irekiak eta hurbilak, ideia berriak eskaintzen dituztenak eta ilusioz betetako etorkizuneko proiektuan partaide direnak. Ikastetxe arinak eta erabakitzeko gaitasun handia dutenak, lan partekatuaren bitartez balioa handitu nahi dutenak, arazoei aurretiaz erantzuten dietenak eta ingurune aldakorra batean erakunde estatiko batek ez duela inoiz erantzun egokirik emango onartzen dutenak.

Zeren lanbide-heziketan inplikaturik daudenen izan behar baitute berrikuntzaren aitzindariak. Betiko printzipioetatik aldentzeko gai diren pertsonak, eraikitzeko gaitasun kritikoa dutenak, zaharkituta dauden aurreiritzirik ez dutenak, arazoizko inkonformismo-jarrera dutenak eta eguneroko errealitatea oinarri hartuta, eta jarrera berritzaile irekia oinarri izanik, pentsatzeko, sortzeko eta ideiak emateko ez ezik aplikatzeko ere gai direnak, eta behar denean zuzentzeko eta bilakatzeko gai direnak.

Eta hori guztia nahitaezkoztat eta positibotzat hartzen den eta gaur egungo eta etorkizuneko erronka berriekiko erantzun egoki gisa onartzen den benetako eta ohiko gertakaria izan dadin, honako hau lortu behar dugu: proposatzen ditugun gauzak ulerterrazak eta onargarriak izatea eta, batez ere, erabilgarriak eta aplikagarriak izatea, betiere gauzak egiteko modu berri eta eraginkorra bilatuz.

Horretaz gain, kontuan izan behar dugu, sortzen ari den kultura berri baten aurrean gaudela, kultura digitala, hain zuzen ere, eta hori dela medio lan egiteko, komunikatzeko eta harremanak izateko modu berri bat sortzen ari dela. Aldaketa horrek aukera sorta handia eskaintzen digunez gero, ulertzeko eta ikasteko beste modu batzuk garatzea eragingo digu eta orain ezinezkotzat hartzen ditugun gauzak eraldatzeko bidea irekiko digu.

Halaber, biztanleriaren zahartzea aldaketa garrantzitsuak eragiten ari da gizarte-eremu guztietan eta gai kezagarria da, nahiz eta gizarteari, orokorrean, zaila egiten zaion garbi ikustea zer den adierazitako zahartzea eta zer ondorio dituen. Urte gehiago eta baldintza hobeetan bizitzeak ahalbidetzen digu zahartzea eta lan-merkatua zahartze aktiboa izenekoaren bitartez lotzea.

Baina hori ez da nahikoa. Ordezko estrategia berri bat aplikatzea ahalbidetuko digun testuinguru berri bat diseinatu, ezarri eta garatu behar da. Beste leku batzuetako profesionalak erakarri behar dira, beste herrialde eta autonomia-erkidego batzuetako biztanleria aktiboaren kolektibo berriak aurkitu behar dira, immigrazioa ikuspegi berrietan oinarrituta kudeatu behar da antolamendu eta informazio egokiarekin, biztanleria aktiboa jatorrian hautatu behar da eta bere prestakuntza jomugan osatu eta egokitu behar da.

Asko hazi behar du emakumearen partaidetzak orain arte emakumeei gutxi onartzen zitzaizkien eginkizun eta garapen profesionaletan; enpresek asko aldatu behar dute beren ikuspegia eta hausnarketa egin beharko dute, horretaz gain, kontratuak eskatzen diren mailetara egokitu beharko dituzte konpentsazio ekonomiko egokiak ezarriz. Orobat, sindikatuak ikuspegi berri eta malgu batean oinarrituta, eta etorkizun ezegonkorraren, bana garatzeko aukera handiak dituen ikuspegitik landu beharko dituzte akordioak.

Administrazioek egiturazko hainbat aldaketa egin beharko dituzte, behar diren diru-laguntzak eman beharko dituzte, eta prestakuntzari dagokionez, malgutasun eta eraginkortasun handiagoa bilatu beharko dute.

Gazteen orientabidea ere ahalik eta azkarren hobetu eta eraldatu beharko da. Unibertsitatea, gaur egun, ez da estatus sozialaren panazea. Edozer ikastea eta, ondoren, bizimodua ateratzea gero eta konplikatua izango da. Gaitasunaren eta okupazio-esparruaren arteko ditzeak gero eta gehiago egokitu behar dira, gainera, nahitaezkoa izango da profesionalen jakintza enpresen eskaerara egokitzea. Hezkuntza-sistemaren eta lan-esparruaren funtsezko erronka argitasunez, zehaztasunez eta eraginkortasunez informatzea izango da.

Eta horrek guztiak, neurri handi batean, eragiten du lanbide-heziketa maila estrategikoan jartzea, berrikuntza aplikatua landu behar duten ikastetxeekin. Ikastetxe horiek aitzindariak izan behar dute, erantzukizun partekatua izanik, gero eta gehiago jardungo dute enprekin lankidetzan eta beren portaerak aldatzeko eta aldaketa-prozesuak maiz aplikatzeko gai izango dira.

Ikusten duzuen bezala, gauza asko daude gertu dagoen eta zalantzak sortzen dituen, baina, aldi berean, aukera asko eskaintzen dizkigun arazoa arindu ahal izateko.

Bihotz-bihotzez eskertzen dizuet biltzar honetan parte hartu izana eta hoberena opa dizuet etorkizunerako.

Amaitutzat ematen dut.....